



ZALDIBIAKO
UDALA

ZALDIBIKO UDALA

Zaldibiko Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako Araudia.

Zaldibiko Baratze Ekologikoen programa deitutakoa zoru eta uren erabileraren eta tokiko espezieak babesteko planifikazio eta kudeaketa da. Horrez gain, formazio eta ingurumen kontzientziaziorako tresna ere bada. Horretarako, Zaldibiko Udalak barazkigintza ekologikoa sustatu nahi du hezkuntzaren esparruan, praktika jasangarri egokirako baratzeak eta aisialdirako ortuak sortzeko lurak prestatuz.

Gero eta herritar gehiagok ekiten diote barazkigintzari, batik bat adinekoek; horretarako, Zaldibiarrek landuko dituzten baratze txikiak sustatuko dira; beti ere, familiaren kontsumorako produktuak lortzeko.

Udalak ziurtatuko du, lursailak dauden heinean, Zaldibiar interesatu guztiek izango dutela programan parte hartzeko aukerarik, eta behin lursailak egokituta bertako zerbitzuak eskura izango dituztela.

Erabiltzaileek errespetatu egin beharko dituzte ingurumen araudia eta araudi honek zehaztutakoa, erabilera komunitarioa delako.

I. ATALA

PRINTZIPIO OROKORRAK

1 artikulua. Araudiaren xedea. Araudi honen helburua da

Zaldibiko Baratze Parkea osatzen duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko beharrezko diren baldintzak ezartzea, eta arautzea horiek esleitzeko prozedura, baratzeetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizua.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Aplikazio eremu objektiboa: Zaldibiko Baratze Parkean kokatu diren lursail guztiak.

Aplikazio eremu subjektiboa: Zaldibiko udalerrian erroldatuta dauden guztiak, esleipenerako Araudi honetako aurreikusitako baldintza guztiak betetzen baldin badituzte.



3. artikulua. Definizioak.

a) Erabiltzailea: Adjudikazioa jaso duena edo lizentziaren titularra. Lagatzen den ondasuna erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa; hau da, baratze ekologikoaren lagapenaren onuraduna.

b) Fruituak: Baratzearen erabileratik lortzen diren etekinak, hau da, lurraren landaketa eta lanketaren ondorioz lortutako elementuak, izan barazkiak, frutak, lekariak, e.a.

c) Elementu komunak: Baratzeak dauden udal lursailari dagozkion berezko elementuak, jabe bati baino gehiagori edo denei baliagarri zaizkienak: Pasabideak, hesiak, hodiak, tangak, muga-piboteak. Era berean, elementu komuntzat jotzen dira laborantzarako lanabesak eta erabiltzaileen esku jartzen diren gainerako tresnak.

e) Erantzukizuna: Baratzeetako erabiltzaile bakoitzak bere erantzukizuna du. Norbanako bakoitzak du erantzukizuna, erabiltzaile den lursailaren neurrian.

f) Baratze ekologikoa: Norbanako batentzako lursaila. Horren arabera ezartzen da erabiltzaile bakoitzaren erabilera eta aprobetxamendu eskubidea, eta dagokion erantzukizuna.

g) Lursaila: Udal lur-eremua, baratze ekologikoak kokatzeko tokia, hain zuzen.

h) Familia-unitatea: Etxebizitza berean izatez eta eskubidez elkarrekin bizi diren pertsonak: Ezkontideak edo izatezko bikotea (edo bikotekideetako bat alarguntza, banaketa edo dibortzioen kasuan) eta adin txikikoak diren seme-alabak, etxebizitza berean bizi direnak.

4. artikulua. Baratze Parkeko erabiltzaileen ordezkaria.

Behin betiko izaeraz esleipendunak diren pertsonak udaleko kudeaketa arduradunarekin harreman zuzena izango duten ordezkariak izendatu beharko dituzte baratze pareka osatzen duen eremu bakoitzean. Ordezkari horiek erabiltzaileen zalantzak, arazoak... jasoko dituzte.

Halaber, erabiltzaileen betebeharra izango da, Zaldibiko Baratze Parkearen erabilera zuzena ziurtatzea eta gutxieneko mantenua egitea.



Esleipendunek elkarte bat sortu beharko dute, eta Elkartea horren kide izango dira Zaldibiko Baratze Parkearen atal diren eremuetatik edozeinetan partzela esleituta dutenak.

5. artikulua. Lagapen epea.

Lursailaren aprobetxamenduak edota erabilerak urtebeteko epea izango du; eta gehienez ere LAU urtera arte luzatu ahal izango da.

Epea automatikoki luzatuko da aldeetako batek kontrakorik eskatu ez badu epea amaitu baino hilabete lehenago.

Esleipendunak, lizentzia amaitu aurreko hilabetean, baratzea garbi utzi beharko du, hurrengo esleipendunak lantzeko moduan.

6. artikulua. Erabilerarako oinarri orokorrak.

1. Kontserbazio eta mantenimendua: Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzailearen betekizun nagusia izango da lagatzen zaion lursaila egoki zaintzea eta mantentzea, hurrengo printzipioek zehazten duten moduan.

2. Elkarrenganako errespetua instalazioak erabiltzerakoan: Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaileek ezingo diete eragozpen, kalte edo minik eragin besteei.

3. Saltzeko debekua: Baratzeen erabiltzaile guztiek debekatuta izango dute haietan lortutako produktuak saltzea.

4. Autohornikuntza: Baratzetik lortutako fruituak familia-unitatearen kontsumorako izango dira. Ezingo da, inolaz ere, horietatik etekin ekonomikorik atera.

5. Ingurumen prebentzioa: Baratzeen erabiltzaileek soilik nekazaritza ekologikorako produktuak erabiliko dituzte, eta ez dira erabiliko lurrari kalte larriak eragiten dizkieten produktuak: Ongarriak, fitosanitarioak. Era berean, ez dira erabiliko akuiferoak kutsa ditzaketan produktuak. Araudi honek zehaztutako guztia beteko da.

7. artikulua. Legeria aplikagarria eta arautzea.

1. Aisialdirako udal baratze horien erabilera, eremu publikoko ondasunen erabilera komun berezi gisa kalifikatu behar da, Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiaren 75.1.b) artikulua dioenari jarraiki; hori dela eta, lizentzia lortu beharko da. Lizentzia kopurua mugatua izango da; hortaz, lizentziaz bidez esleitu beharko da baratze ekologikoen ustiapenerako erabilera-baimena eskatzaile guztien artean.



2. Beraz, eremu publikoko ondasunak erabiltzeko baimena izanik, informazio publikorako epe bat ezarriko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen arabera.

3. Aisialdirako baratze ekologikoen esleipenari, jabetzari eta erabilerari aplikatuko zaien legeria araudi honetan aurreikusitakoa izango da.

4. Izaera subsidiarioan aplikatuko dira 33/2003 Legean, azaroaren 3koan (Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa) jasotako arauak.

Udalak baimenaren beharra eta baldintza berak mantenduko ditu helburu horretarako lortu dituen jabetza pribatuko lurretan ere.

8. artikulua. Lagapen titulua.

Lizentziak baratzea erabiltzeko ematen duen eskubidea pertsonala da eta besteri eskualdaezina, eta lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean soilik balioko du. Erabiltzaileak ezingo ditu, inola ere, laga, zergapetu, edo debalde edo kostu bidez eman lizentziak emandako erabilera eskubideak. Eskubide horiek ezingo zaizkio beste inori eman inolako kasutan.

Lagatako lizentziaren tituluak «prekario» izaera du, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatu batengatik, edozein unetan lizentzia kendu ahalko dio erabiltzaileari. Kasu horietan Udalak ez du inolako kalte-ordainik eman beharko.

Jabetza pribatuko lurrentzat aski izango da Udalaren eta jabetza pribatuaren arteko kontratuaren amaiera.

9. artikulua. Baratze-programaren funtzionamendurako argibideak.

Aisialdirako baratze ekologikoen programaren jarduerentzako jarraibideak agindu ahal izango ditu alkateak: egituratzeko moduak, aholkuak, ordutegiak, laborantza-motak, e.a.

Baratzeen erabiltzaileek derrigorrez bete beharko dituzte jarraibide horiek guztiak, baita alkateak, zinegotzi delegatuak edo Udaleko arduradunek erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak ere

II. ATALA ESLEIPEN PROZEDURA

10. artikulua. Onuradun izateko baldintzak.



ZALDIBIAKO
UDALA

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera lizentzien onuradun izan ahalko dira Zaldibiko udalerrian erroldatuak dauden pertsonak. Ezinbestekoa izango da esleipenerako deialdia argitaratu aurretik gutxienez URTEBETE erroldatua izatea.

Horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Zaldibiko Udalarekiko zerga-betebeharrak eta beste edozein motatakoak ordainduta izatea.

b) Familia-unitate bereko kideren bat ez izatea beste baratze ekologiko baten erabiltzaile.

c) Ez izatea nekazaritza- jarduerarako egokiak diren beste landa-lur baten jabe, ez edukitzea beste landa-lur baten gozamen eskubiderik, ezta maizterra izatea ere, ez erabiltzailea bera, ezta familia unitateko beste edozein kide ere.

d) Araudi honetan zehaztutako ez- betetzeren batengatik zehapenen bat jaso ez izana.

11. artikulua. Lizentziak esleitzeko prozedura.

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera ahalbidetzen duten lizentziak emateko konkurrentzia erregimena aplikatuko da, kontuan izanik lizentzia kopurua mugatua dela. Hala ere, ez zaie intereseko taldeei ezarriko hori, eta Udalak zenbait lur gorde ahal izango ditu erabilera espezifiko horretarako.

2. Prozedura hori ofizioz abiaraziko du Udalak, eskumena duen tokiko organoak dagokion ebazpena egin ondoren. Ebazpen horretan jasoko da aisialdirako baratze ekologikoen erabilera lizentzien lagapenari buruzko deialdia, bai baratze guztientzat, bai haien kopuru mugatu batentzat. Deialdi hori udaletxeko iragarki taulan argitaratu beharko da, baita Udalaren webgunean ere (www.Zaldibia.net).

3. Baratze ekologikoen esleipenean interesa duten pertsonak eskabide bat aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, eredu ofizialean. Eskabideak zehaztutako dokumentuez gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun txartela edo ordezkio agiri legalaren fotokopia.

b) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitortpena.

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea gutxienez hiru urte aurretik erroldatuta dagoela, arau-hausterik ez duela eta Udalarekiko zerga-betebeharrak edo beste edozein eratakoak bete dituela.



12. artikulua. Eskumena eta prozedura.

Alkatetzak ebatziko du lizentziak emateko prozedura.

Gutxienez hamar egun naturaleko epea ezarriko da instantziak aurkezteko. Ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da iragarki- taulan.

Interesdunek 5 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda dakarren ebazpena argitaratuko da. Lursailen kopurua baino eskaera gehiago aurkezten badira, jendaurreko zozketa egingo da, horretarako data behar bezala iragarritz.

Ondoren, zozketa eginda hala badagokio, esleipenen eta erreserben behin betiko zerrendak argitaratuko dira, udaletxeko iragarki-taulan.

13. artikulua. Lizentziak esleitzea eta ordezkoen zerrenda.

Lizentziak argi azaldu beharko ditu honakoak: xedea, baratzearen definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

Zozketa egin ondoren baratzerik gabe gelditzen direnen izenak ordezkoen zerrenda batean jasoko dira, zozketan atera den hurrenkeran. Zerrenda hori erabiliko da bajak betetzeko; kasu horretan, dei egingo zaio hurrengo hautagaiari, aipatutako zerrendaren arabera, lizentziaren indarraldia eta laborantza epe emankorra kontuan hartuta.

Baratzearen erabilera baimentzen duen lizentzia esleitu ondoren, esleipendunak urteko kuotaren kopurua autolikidatu beharko du eta fidantzari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du lizentzia jasotzeko. Esleipenerako epea igaro ondoren itzuliko da fidantza hori, denboraldi berrirako beste baratze baten esleipenduna ez bada.

14. artikulua. Zozketa irizpideak.

Zozketa irizpideak dagokion lizitaziorako deialdian zehaztuko dira

15. artikulua. Lizentzien iraupena.

1. Lizentziek urtebeteko iraupena izango dute, eta gehienez 4 urtera arte luzatu ahalko dira, nahiz eta titularrak eskubidea izango duen hurrengo deialdietan parte hartzeko.



ZALDIBIAKO
UDALA

2. Kasu bakoitzean eskumena duen tokiko organoak indargabetu ahal izango ditu aipatutako lizentziak, emakida ahalbidetu zuten baldintzak edo araubide honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badituzte erabiltzaileek

16. artikulua. Lizentziak besterenganatzea eta lizentziak iraungitzea.

1. Aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak:

- a) Ezingo zaizkio beste inori transmititu.
- b) Epea betetzean iraungiko dira.
- c) Bertan behera geldituko dira edo kenduko dira:
 - c1) Alde bien adostasunarekin.
 - c2) Ebazpen judizialen bitartez.
 - c3) Lagapen-hartzaileak uko egiteagatik.
 - c4) Araudi honetan edo dagokion lizentzia ematen duen ebazpenean jasotako betekizun eta xedapenak ez betetzeagatik. Kasu horietan, interesdunari jakinaraziko zaio espedientearen tramitazioari ekin aurretik.

III. ATALA

ERABILERA ETA APROBETXAMENDURAKOBALDINTZAK

17. artikulua. Erabilerarako baldintza orokorrak.

1. Aisialdirako baratze ekologikoen esleipendunak behartuta egongo dira baratzeak eurek erabiltzera eta ez lagatzera beste pertsona batzuei. Oporraldi eta antzeko kasuetan, Udalarari jakinarazi beharko zaio beste norbaitek erabiliko duela baratzea. Kasu horietan Udalak du epe baterako baimena emateko edo ukatzeko eskumena Horrez gain, honako baldintzak ere bete beharko dituzte:

- a) Arau orokor gisa, baratzeen erabilerari buruzko araudi honetan jasotako alderdi guztiak errespetatu beharko dituzte.
- b) Baratzeetan tokiko espezieak bakarrik landatuko dira: letxuga, tomatea, tipula, porrua, kalabazina, babarrunak...; bai eta inguruan ohikoak diren apainketarako landare eta loreak, aromatikoak eta sendabelarrak ere. Bertakoak ez diren espezie guztiak baztertuko dira.



c) Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eskuratutakoan zuten egoera beretan mantentzea, behar bezala zainduta. Lursailak garbi egon beharko du uneoro.

d) Erabiltzeko emango diren elementu komunak eta lanabesak egoki mantendu eta zaintzea. Udalari jakinarazi beharko diote baratzeei edo instalazioei eragiten dien edozein gertakari, beste erabiltzaile batzuek zein kanpoko pertsonak eragindakoak izan arren.

e) Erabiltzaile berriek erabiltzeko moduan itzultzea baratzea Udalari, lizentziaren epea amaitzen denean edo, lizentziari uko egin edo bertan behera uzten den kasuetan, erabakia gauzatzen den unean.

f) Hasieran lagatzen den lursailaren egitura eta azalera errespetatzea. Hortaz, erabiltzaileak ezingo ditu Udalak ezarritako mugak aldatu, ezta Udalaren baimenik gabe obrarik edo itxiturarik egin ere. Era berean, titularrak ezingo du jarri zehazki lurraren laborantzarako ez den beste ezer: barbakoak, etxolak, biltegiak...

g) Baratzeetako beste erabiltzaileei eragozpenik ez sortzea. Ez erabiltzea kalterik edo minik eragin lezakeen tramankulu, mekanismo edo bestelako sistemarik.

haga efectivo la misma.

h) Laborantzan, garbiketan edo baratzeko gainerako zereginetan arau honetan onartutako produktuak besterik ez erabiltzea.

i) Baratzeak eskatzen dituen lan guztiak egitea, batik bat fruituak biltzea, horiek kiratsa sortzen, lursaila zikintzen edo paisaiari eta inguruari kalte egiten badiete.

j) Baratzeetan ezingo dira materialak edo tresnak bildu edo pilatu, ezinbestekoak ez badira lurraren laborantzarako.

2. Elementu komunak, bai azpiegiturak, bai lanabesak, erabilera eta garbitasun egoera egokietan mantendu eta errespetatu beharko dira. Erabiltzaileen gehiengoak elementu komunak mantentzeko erabakitzen dituen erabakiak bete beharko dira ezinbestean. Era berean, erabiltzaileen taldeak ordezkari bat edo batzuk aukeratu beharko ditu elementu komunak gaineko erabaki lotesleak hartzeko edo Udalarekiko harremanetan bozeramaile izateko.

3. Lizentziaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetakoren bat beteko ez balu, Udalak lizentzia kendu ahal izango lioke.

4. Era berean, erabiltzaileek eurek egingo dituzte egunero-egunero baratzearen kontserbaziorako lanak, konponketak eta instalazioen mantentze-lanak, eta zainduko dute erabilera egokia dela.



ZALDIBIAKO
UDALA

5. Esleipendunek derrigorrez parte hartu beharko dute Zaldibiko udalak antolatzen dituen nekazaritza eta baratze zaintza ekologikoko praktika onen ikastaro teoriko eta praktikoetan.

6. Baratze kideak behartuta daude eremu bakoitzean bozeramaile bat izendatzera. Udaletxeko teknikariarekin harreman zuzena izango dute eremuko kezkek, arazoak, etab. bideratuko dituztenak.

7. Baratze kideen artean finkatu beharko du mantentze-lanen egutegi bat, elkar lanean ekiteko Baratza Parkeko beharrei (baratze muga eta azken garbiketa, etab.).

Egutegi hau Udaletxeko arduraduna eta bozeramaileek adostu beharko dute.

8. Baratzetara animaliak eramatea debekatuta dago. Txakurra eman daitezke jabe bertan dagoen bitartean, baina beti lotuta egon beharko dute

18. artikulua. Lurraren aprobetxamendua.

Lagapenaren titularra behartuta dago lagatako baratzea lantzerantz; nekazari on batek bezala jardun beharko du eta lanabes egokiak erabili beharko ditu. Aurreko artikulua zehaztutakoez gain, baratzearen aprobetxamenduak arau hauek ere bete beharko ditu:

a) Ez da onartuko lurrak, zorua edo azpiko lurra kaltetzen duten landareak edo barazkiak landatzea.

b) Era berean, erabiltzaileak ezingo du espezie exotiko edo inbaditzaileak landatu, ezta legez onartuta ez dagoen bestelako landararik ere.

c) Bestalde, ezin da inolako zuhaitzik landatu, fruta arbolak badira ere.

d) Ezingo dira instalatu negutegiak, kutxak, iltzatutako elementuak, etxolak, txorimaloak, panpinak edo antzekoak.

e) Debekatuta dago baratzearen laborantzaren hondarrak edo belardiak erretzea.

f) Ezin da elementurik instalatu baldin eta paisaiari eragiten badiote edo dauden instalazioak aldatzen badituzte, izan bidoiak, deposito osagarriak, txapak, banatzaileak edo antzekoak.

g) Ezin da eraikuntzarik egin lursailetan, ezta itzalpeak edo zintzilikatze tresnak edo inguruaren itxura alda dezaketen bestelako elementuak erantsi ere.

h) Ezingo dira erabili zepoak, tranpak, sokak, edo suzko armak, gomazko jaurtigailuak edo bestelako tresna edo tramankulurik.

i) Lursaila ezin da hesiekin itxi (harri, egur, adreilu, bloke zein bestelako eraikuntzarako elementu mugatzaileekin), baratzearen ertzak edo



mugak itxi, markatu edo mugatzeko, Udalak horretarako aukeratu dituenetatik aparte.

Lizentziaren titularrak aurreko atalean adierazitako baldintzetakoren bat beteko ez balu, Udalak lizentzia kendu ahal izango lioke.

19. artikulua. Erabiltzailearen ahalmenak.

Lizentziadunek honako ahalmenak izango dituzte: Egokitu zaion lursaila lantzea eta hortik aterako diren fruituak aprobetxatzea.

1. Ahalmen horiek dira lurra lantzea, landatzea eta ereitea, zaintzea eta mantentzea, ureztatzea, ongarriztatzea, horretarako beharrezko dituen tresnak erabiltzea, fruituak biltzea, eta helburu bera duten gainerako lan guztiak.

2. Era berean, elementu komunak erabili ahal izango ditu, Udalak erabiltzaileen eskura jartzen dituen laborantzarako lanabesak barne. Udalak jarritako lanabesak erabiltzaileek mantendu eta konpondu beharko dituzte. Puskatuko balira, erabiltzaileak berak konpondu edo erosi beharko ditu.

3. Artikulu honetan adierazitako gaitasunak lizentziaren titularrari baino ez dagozkie.

4. Gaitasun horiek iraungi egingo dira erabilerarako lagapenaren epea amaitzen denean, edo berau ahalbidetzen duen lizentzia kentzen denean, araudi honetan jasotako kasuetan.

5. Inola ere ez da onartuko baratzeen gaineko jabetza eskubidea eskualdatzea.

20. artikulua. Nekazaritza ekologikoa.

Baratzeen erabileraren onuradunek ez dute erabiliko lurrari, azaleko urari eta akuiferoei kalte larririk eragin ahal dien produktu fitosanitariorik edo bestelako ongarririk. Ezta atmosferara partikulak isuri ere, pertsonei, faunari zein florari kalteak eragiteko arriskua badute. Era berean, ezingo da erabili zorua kutsa dezakeen bestelako garbiketa produkturik ere.

Bestalde, debekatuta dago lurrera ezer kutsatzailerik botatzea, baldin eta zoruari kalte larririk eragin ahal badio. Ahal den neurrian, erremedio naturalak erabiliko dira izurri eta gaixotasunen aurka eta lurra aldiro-aldiro ongarriztatu egingo da, aldez aurretik deskonposatutako materia organikoa erabiliz (konposta, simaurra, hondakin organikoak...), ongarririk erabili ordez.

Jarduera hau laborantza metodo tradizionalekin lotu nahian, baina ingurumenaz modu zientifikoan arduratzen diren ezagutza eta teknika berriei



ZALDIBIAKO
UDALA

uko egin gabe, burutuko den nekazaritza ekologikoa izango da. Hortaz, A. Dehovelen definizioari jarraituz, ez da erabiliko produktu kimikorik: a) kimikoki eraldatutako produktu naturalak, b) tratatutako material begetala edo animalien zuntzak, c) osorik edo zati batean sintesi kimiko bidez lortutako produktuak.

Gauzak horrela ulertzeko moduarekin bat, Baratza Parkeko lursailen erabileran nekazaritza ekologikoaren arau hauek kontuan izango dira:

1) Ongarriei dagokienez:

Debekatuta daude:

a) Sintesiko ongarri organiko guztiak (Espainiako estatuan saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (lastoak, simaurrak, pestizida eta herbizidekin tratatutako belar eta ongarri organikoak).

b) Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesikoak, kare bizia, etab.).

Onartuta daude:

a) Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako zimaurreak (konpostajea hartidura aerobikoaren prozesutzat ulertuta), ongarri berdeak eta ongi deskonposatutako uzten hondarrak, baita kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak ere.

b) Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak, etab.).

2) Tratamendu fitosanitarioei dagokionez:

Debekatuta dago:

a) Intsektizida, fungizida eta akarizida eta sintesi kimikotik eratorritako beste produktu guztien erabilera.

Onartuta daude:

a) Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoñako salda, etab.).

b) Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, gernuak).

3) “Belar txarrei” dagokienez:



Debekatuta dago sintesiko edozein herbizida kimiko erabiltzea.

Onartuta dago belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabiltzea (bigungarria, eskuzko jorraia edo erdi eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).

4) Hazi eta landareei dagokienez:

Ahal den neurrian, ez dira erabiliko:

- a) Laborantza kimikotik datozen birlandatzeko barazkien erabilera.
- b) Prestatzeko edo kontserbatzeko sintesiko produktu kimikoekin tratatutako sustrai, erraboil eta tuberkulu en erabilera.
- c) Bildu ondoren produktu kimiko sintetikoekin tratatutako hazien erabilera.
- d) Edozein mota eta klasetako organismoak, genetikoki moldatuak (transgenikoak).

Onartuta dago:

- a) Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta hazien erabilera.
- b) Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez baldin badituzte.

Garatu beharreko laborantza ekologiko horrek ekoizpen eta kontsumo jasangarrien praktiken eredu izan behar du.

21. artikulua. Ureztatzeko baldintzak.

1. Baratzeen erabiltzaileek Parkean eskura dituzten ureztatzeko baliabideak erabili behar dituzte.
2. Ezingo dira erabili daudenak ez diren beste elementu batzuk, pertsona ezinduek ezik. Hauek soilik erabili dezakete udaletxeak beraientzat jarritako ureztatzeko sistema.
3. Debekatuta dago horretarako prestatu ez den beste edonondik ura ekartzea baratzeak ureztatzeko



ZALDIBIAKO
UDALA

22. artikulua. Hondakinen trataera.

1. Baratzeen erabiltzaileen erantzukizuna izango da lursaila garbi mantentzea eta horretarako hondakin organikoak konpost-gunean uztea.
2. Gainontzeko hondakinak Udalak horretarako zehaztutako tokian utziko dira

23. artikulua. Lurrak emandako fruituen helburua.

1. Lurraren laborantzatik eskuratzen diren fruituak biltzeko eskubidea izango dute erabiltzaileek, baina soilik euren kontsumorako edo euren familiarenerako erabili ahal izango dituzte.
2. Debekatuta dago erabiltzaileek aisialdirako baratze ekologikoetatik jasotzen dituzten produktuak saltzea, baita horiekin edozein eragiketa komertzial egitea ere.

24. artikulua. Mantentze-lanen gastuak eta finantzazio gastuak.

1. Erabiltzaileak lizentziaren indarraldiaren bitartean baratzearen laborantzak dakartzan gastuen kargu egin beharko du: ongarriak, landatutako landareak eta laborantzarako beharrezkoak diren gainerakoak.
2. Erabiltzaileek ordaindu egin beharko dute dagokien karga oro (zergak, kanonak), eta Udalak beharrezkotzat jotzen dituenak baratzeen erabilerak edo erabiltzaileen komunitateak eragindako kostuak ordaintzeko.
3. Udalak kanon bat aplikatu dio baratzearen laborantzari, baita fidantza bat ere, udal eremu publikoko gunearen erabilera egokia bermatzeko; kopuru hauek erabiliko ditu:

a) Kanona:
4 € asteko baratze bat erabiltzeagatik.

b) Fidantza: 100,00 € fidantza eman beharra dago udal eremu publikoaren erabilera zuzena bermatzeko.

Kopuru horiek dagokien ordenantza fiskalean jasoko eta eguneratuko dira.

c) Ura erabiltzearen gastua: baratzetako gastua udalak asumituko du, beti ere kontsumoa jasangarria den bitartean

25. artikulua. Ingurumen Hezkuntza.



1. Eskoletako umeei aisialdirako baratze ekologiko horiek bisitatu ahal izango dituzte, baratzeotan egiten diren jardueren berri izateko, eta nekazaritza tradizional eta ekologikoaren gaineko balioak ezagutzeko.

2. Alde horretatik, erabiltzaileek, ezinbestean, aukera eman beharko diete eskoletako taldeei baratzeetara sartzeko, Udalak Hezkuntza arloko administrazioekin edo beste herri administrazioekin antolatutako bisiten kasuan.

3. Kasu horietan, erabiltzaileak lagundu egin beharko die taldeko arduradunari edo irakasleari, ahal duen neurrian, baratze bisitan. Bisita horietan, laborantzaren teknikak eta ezaugarriak azalduko zaizkie: lurraren prestaketa, ongarrizatzea, landaketa, ureztatzea, jorratzea, izurrien garbiketa, bilketa eta hondakinen kudeaketa.

4. Eurek dakitena erakustez batera, lurrari eta naturari lotutako balioak transmititu ahal izango dituzte erabiltzaileek: landatzeko metodoak, erabilitako espezieak, nekazaritza tradizional eta ekologikoaren ezaugarriak eta garrantzia, ingurumenarekiko errespetua eta datozen belaunaldiekiko erantzukizuna.

26. artikulua. Erabiltzaile eskubidea galtzea.

1. Araudi honetan ezarritakoa ez betetzeak aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaile eskubidea erabat galtzea ekarriko du: baratzea erabiltzeko eskubidea eta elementu komunak erabiltzeko eskubidea.

2. Erabiltzaile eskubideak galtzeko arrazoiak:

a) Eskubideari uko egitea edo bertan behera uztea. Kasu horietan, onuradunak Udalari aurkeztu beharko dio uko egite hori.

b) Heriotza edo laborantza lanak eragozten dituen gaixotasunen bat izatea.

c) Erroldan baja ematea, edo modu jarraian ez bizitzea udalerrian, lizentziak dirauen bitartean.

d) Lursailaren laborantza edo erabilera bertan behera uztea, hilabete baino denbora gehiagoz.

e) Esleipena eragin zuten beste edozein baldintza desagertzea.

f) Araudi honetan aipatzen diren bateraezintasun edo debekuren bat agertzea.

g) Baratzea erabiltzea araudi honetan ezarritakoa ez den beste helburu batzuekin.



ZALDIBIAKO
UDALA

h) Udalak edo beste Herri Administrazio batek hirigintza edo azpiegitura planen bat onartzea, aisialdirako baratze ekologikoen lurretan zuzkidura publiko bat ezartzea eragingo lukeena.

Kasu horietan, aipatutako planaren onarpenak gizarte intereseko edo erabilera publikoko aitortpena izango du, eskatzen diren lursailen erabilera tituluak indargabetuko dituena.

Lurzoru pribatuetan udalaren eta jabetza pribatuaren arteko kontratua bukatzea.

i) Bizikidetza, auzokidetza edo elkartasunik gabeko jarreraren inguruko oinarritzko arauak ez betetzea.

j) Hutsegite arin, larri edo oso larriengatik isun bat jasotzea, lizentzia galtzea eragingo lukeena beti

27. artikulua. Lizentzia kentzeko prozedura eta erabiltzaile izaera galtzea.

1. Erabiltzaile izateko eskubidea galtzea Udalak tramitatuko du, lizentzia kentzeko prozedurari jarraituz. Erabiltzaileari lizentzia kentzeko arrazoiak azalduko zaizkio eta 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Ondoren, espedientea behin betiko ebatziko da.

2. Erabiltzaile izateko eskubidea galtzeak ez du, inola ere, erabiltzaile horrek kalte-ordainen bat jasotzeko eskubiderik emango, ezta ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik ere. Era berean, galera horrek fidantza galtzea ere ekarriko du. Horrez gain, sortutako gastu eta kalteak ordaindu beharko ditu. Baratzea itxaron zerrendako hurrengo eskatzaileari esleituko zaio

IV. ATALA ERANTZUKIZUN ERREGIMENA

28. artikulua. Erabiltzailearen erantzukizuna.

Erabiltzaile bakoitzak bere baratzearen gaineko erantzukizun osoa izango du. Erabiltzaileak lizentzia eskatzearekin batera araudi honek dioena onartzen du. Hortaz, laborantzatik eta erabileratik eratorritako erantzukizuna berea da ezinbestean, araudi honek ezarritako parametroetan.

Ondorioz, erabiltzaileak hauen guztien ardura du:

1. Laborantzaren prozesua. Udala ez da laborantza prozesuaren eraginen edo emaitzen erantzulea, ezta lurraren egoerarena edo lurraren emankortasunarena ere.



ZALDIBIAKO
UDALA

2. Lurra lantzeko mota. Udalak ez du lanabesen erabileraren gaineko erantzukizunik izango, ezta horien erabilerak inoren osasunean edo osotasun fisikoan duen eraginarena ere

3. Norbere produktu eta lanabesak. Udalak ez du erantzukizunik baratzean gerta daitezkeen lapurreta, kalte edo ekintza bandalikoetan. Ezta erabiltzaileak gordetako edo bildutako produktu, fruitu edo lanabesen lapurretan ere.

4. Animaliek sortutako kalteak. Araudi honen kontra erabiltzaileak animaliarik sartzen badu baratzeetan, animalia horrek sortutako kalteen erantzule izango da.

5. Baratzean bildutako produktuak. Produktu horiek norberaren edo beste edonoren osasunean sor ditzaketen kalteen erantzule izango da erabiltzailea.

6. Erabiltzaileak Udalari jakinarazi behar dio lagatuko baratzean edo instalazioetan kalterik edo hutsik ikusten baldin badu, norberarenean zein beste baten baratzean.

29. artikulua. Hirugarrenen aurreko erantzukizuna

1. Erabiltzaileek erantzukizun bera izango dute hirugarrenei eragindako kalteen kasuan, aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaile izan ala ez, aisialdirako baratze ekologikoen erabileran eta aprobetxamenduaren gauzatzean gertatu badira.

2. Era berean, beste erabiltzaileei edo beren baratzeei eragindako kalte edo lesioen erantzule ere izango dira.

3. Behar den prestutasunarekin jokatu beharko da edozein kalte, eragozpen edo lesio saihesteko, gainerako baratzeetako erabiltzaileei zein beren baratzeei.

30. artikulua. Udalari eman beharreko kalte-ordaina.

1. Erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte hirugarrenei edo hirugarrenen ondasunei erabiltzailearen jardunak eragindako kalteak.

2. Erabiltzeko lagatuko instalazioei edo baratzeei eragindako kalteengatik sortuko balitz erantzukizuna, Udalak dagokion kalte-ordaina eskatzeko duen eskubidea erabiliko du, aplikagarria den zuzenbide administratiboaren arauetara jarraiki.

31. artikulua. Hasierako egoerara itzultzea.



ZALDIBIAKO
UDALA

1. Baratzeak erabiltzaileari laga zitzaizkionean zuten egoera berean itzuliko dira, kanpoko ekarpenekin lurra nabarmen aldatua izan gabe.
2. Erabiltzaileek gauzak hasierako egoerara itzuli edo konpondu beharko dituzte, instalazioak erabilera normalean baino gehiago hondatzen direnean
3. Lanabesen kasuan, erabiltzaileak baratzea uzterakoan, hasierako egoeran itzuli beharko ditu.
4. Erabiltzaile batek gauzak konpontzeko lanak egingo ez balitu, Udalak zuzenean egin ahal izango ditu. Kasu horretan erabiltzaileari kobratuko zaizkio sortutako gastuak.

V. ATALA DIZIPLINA ARAUBIDEA

32. artikulua. Arau orokorrak.

1. Aisialdirako baratze ekologikoen erabiltzaileek araudi honetan ezarritako guztia bete beharko dute; eta, hemen aurreikusitako ez diren kasuetan, Tokiko Erakundearen ondasunen gaineko araudia bete beharko dute.
2. Araudi honek ezarritakoaren aurkako jarduera oro arau-haustetzat joko da eta Udalak zigortu egingo du.
3. Bide administratibotik zigortuko dira, isun bidez, araudi honetan jasotako baldintzetan erabiltzaileek aisialdirako baratze ekologikoen instalazio edo lursailetan eragindako kalteak, doluz, erruz, neglijentziaz edo konturatu gabe sortutakoak. Berdin jokatuko da baratze ekologikoen helburuak eta arauak urratzen direnean.
4. Zigorren zenbatekoaren graduazio eta zehaztapena irizpide hauen arabera egingo da:
 - a) Eragindako kaltearen tamaina.
 - b) Arau-hausleak jasotako etekina.
 - c) Nahitasuna, intenzionalitatea egon den ala ez.
 - d) Izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea urtebeteko epean, ebazpen irmoen bitartez jaso direnean.
5. Isunaren zenbatekoa arau-hausleak lortutako etekina baino txikiagoa denean, isunaren zenbatekoa handitu egingo da etekinaren zenbatekoa



parekatzeraino; eta, gehienez ere, eragindako kaltearen bikoitzeraino igo ahal izango da.

6. Erabiltzaileen erantzukizuna nagusia edo zuzenekoa, edota zeharkakoa izan daiteke. Nagusia edo zuzenekoa izango da eurak badira arau-haustearen egileak. Zeharkakoa, ekintzen egilea kanpoko beste norbait denean eta erabiltzailearen borondate onez edota horren neglijentziaz ahalbidetu dituenean, sartzea debekatuta zuten hirugarrenei sartzen utziz.

33. artikulua. Ikuskaritza.

1. Udalak izendatutako pertsonak instalazioen ikuskapenak egin ahal izango dituzte. Pertsona horiek agintari izaera izango dute ikuskapena egiten ari den bitartean. Era berean, alkateak eta eskumena duen zinegotzi ordezkariak ere funtzio berberak izango dituzte.

2. Erabiltzaileek aipatu berri diren pertsonari baratzetara sartzen utzi beharko diete, baita haien eskatzen dieten informazio guztia eman ere, aisialdirako baratze ekologikoetan egindako laborantzaren erabilera, aprobetxamendu eta kudeaketaren jarraipena egin ahal izateko.

34. artikulua. Arau-haustek.

1. Araudi honetan edo aplikatu daitezkeen beste edozein arauditan (araudi honetan jasotzen baldin bada beste araudihori ezinbestean bete behar dela) esandakoaren aurkako jarrera duen oro arau-hausletzat joko da; berdin baratzeen erabiltzailea izan edo zerikusirik ez duena izan.

2. Arau-haustek **arinak**, larriak eta oso larriak izan daitezke, jarrera arau-haustearen intentsitatearen edo erruaren mailaren arabera; edota instalazioetan eragindako kalteen tamainaren arabera.

3. Zehazki, eta aurrekoari kalterik egin gabe, arau-hauste **arintzat** joko dira honako jarrera hauek:

a) Araudi honetan espresuki zehaztutako moduan baratzki espezieak landatzeko eta lantzeko ez erabiltzea baratzeak.

b) Kanpoko pertsonari instalazioetara sartzen uztea; familiako kideak, erabiltzaileari tarteka laguntzen diotenak, ikasleak edo baimendutako pertsonak salbu.

c) Baratzeetan animaliak izatea, txakurrak izan ezik, beti ere erreglamendu honen baldintzetan badaude.



ZALDIBIAKO
UDALA

d) Baratzeetan trakzio mekanikoko ibilgailuak izatea, udalaren baimenik gabe.

e) Ez betetzea Udalak eta teknikariek emandako jarraibideak.

f) Araudi honek ezarritako betebeharrak eta zereginen aurkako jarrera oro, ez bada arau-hauste larria edo oso larria.

g) Udalak antolatzen dituen formazio ikastaroetara ez joatea, justifikatu gabe.

4. Arau-hauste **larritzat** joko dira honako jarrerak:

a) Baratzeen mantentze-lanak ez betetzea, baratzeak kaltetu edo hondatu diren kasuetan.

b) Lursailean lanak edo aldaketak egitea, Udalaren hartarako baimenik eman gabe.

c) Beste erabiltzaileei behar ez diren eragozpenak sortzea.

d) Udalak horretarako baimendu gabe hirugarrenei baratzeak erabiltzen lagatzea.

e) Lurra, lurzorua edo azpiko lurra honda lezaketen espezieak edo landareak lantzea.

f) Baratzeetan onartzen ez diren barbakoa, biltegi edo bestelako elementuak jartzea.

g) Larreak edo baratzeetako laborantzaren hondarrak erretzea, baita edozein eratako suak piztea ere.

h) Bi huts-egite arin edo gehiago egitea urtebetean.

5. Arau-hauste oso **larritzat** joko da honako edozein jardunbide:

a) Erabiltzaile batek edo harekin batera datorren beste edonork beste erabiltzaileei eragindako lesioak.

b) Zoruan kutsadura sortzea.

c) Beste nekazarien jarduera edo aprobetxamendu normala oztopatzea.

d) Baratzeen funtzionamendu arrunta oztopatzea edo eragoztea.

e) Lagatzen diren instalazioak edota lursaila bera larriki hondatzea.

f) Debekatuta dauden landare exotiko edo psikotropikoak edukitzea, landatzea, ereitea, biltzea edo ekoiztea.

g) Baratze ekologikoetan lortutako produktuak komertzializatzea.

h) Lizentzia eskatzerakoan datuak faltsutzea (nortasuna, adina edo onuraduna izateko bete beharreko beste edozein datu).

i) Bi huts-egite larri edo gehiago egitea urtebeteko epean.

6. Lizentziaren titularrak huts-egite arin, larri edo oso larriren bat egiteak lizentzia hori kentzea ekarriko du, ezarriko zaion zigorraren kalterik gabe, hurrengo artikuluan xedatutakoari jarraiki. Lizentzia kentze horrek ez dio erabiltzaileari kalte- ordainak jasotzeko aukerarik emango.



ZALDIBIAKO
UDALA

Erabiltzaileren batek izandako jarrerak delitu izaera badu, gertakari horiek horretarako eskumena duten agintari judizialei jakinaraziko zaizkie, dagozkien ondorioak izan ditzaten.

Edonola ere, Udalak bultzatuko ditu kaltetu moduan legozkiokeen ekintza penal, zibil eta administratibo guztiak.

35. artikulua. Zehapenak.

1. Legozkiokeen zehapenen kopurua ezarri eta erabakitzeko, araudi honetan jasotako graduazio-irizpideak erabiliko dira.

2. Arau-hauste arinak: 60 € eta 100 € bitarteko isuna.

3. Arau-hauste larriak: 101 € eta 200 € bitarteko isuna.

4. Arau-hauste oso larriak: 201 € eta 300 € bitarteko isuna.

5. Instalazioetan kalterik eragin baldin badu, erantzukizuna duen erabiltzaileak gauza guztiak hasierako egoeran zeuden bezala utzi beharko lituzke berriz, eragindako kaltea konponduta.

6. Lizentzia kentzea ez da zigortzat joko, aurreko artikuluaaren seigarren atalean aurreikusitakoaren kasuan

36. artikulua. Zehapena egiteko eskumena duten agintariak.

1. Dagozkion zigorrak jartzeko eskumena Alkate-Udalburuari dagokio.

2. Edonola ere, Alkateak tokiko beste organo bati eskuordetu ahalko dio zigorra jartzeko gaitasuna, Tokiko Jardunbideen Oinarrien Legeari jarraiki.

37. artikulua. Zigorra ezartzeko prozedura.

1. Arau-hausleei zigorrak jartzea prozedura zigortzaile baten ondorioa izango da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen IX Atalean aurreikusitako erregimenaren arabera.